



EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAK EGITEKO SARBIDE-PROBARAKO DEIA EGITEN DA, 2023 URTEKO PROBA ANTOLATU, GARATU ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DIRA ETA 2023-2024 IKASTURTERAKO IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuak, 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan xedatzen duenez, Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Graduak titulua lortzeko irakaskuntzetan sartzeko, beharrezkoa izango da Batxilergoko titulua izatea edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarbide-proba gaindituta izatea, edo goi-mailako arte-irakaskuntzen titulua, unibertsitate-titulua edo goi-mailako teknikari-titulua izatea, bai eta sarbide-proba espezifikoa gainditzea ere. Hori jasota dago, halaber, uztailaren 26ko 628/2023 Errege Dekretuak aldatu zuen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuta), araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duenak.

Bestalde, lege organiko horrek 69.5 artikuluan ezartzen duenez, hemezortzi urtetik gorakoek, batxilergo-titulua dutela edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutela egiaztatzen ez badute ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egin ahalko dituzte; horretarako, proba bat gainditu beharko dute. Proba hori hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatuko dute, eta haren bidez egiaztatuko da izangaia behar bezain heldua dela, Batxilergoko helburuei dagokienez eta dagokion ikasketak probetxuz egiteko ezagutzari, abileziei eta gaitasunei dagokienez. Izangaiek, horretaz gainera, ikasketa horietako bakoitzerako sarbide-proba espezifikoa gainditu beharko dute.

Uztailaren 26ko, 628/2023 Errege Dekretuak aldatutako urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuta), araututako goi-mailako irakaskuntzak antolatu zituenak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautu zuen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua argitaratu zen.

Errege Dekretu horren 5. artikulua arabera, izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko dituzten heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak balioestea da irakaskuntza horietan sartzeko egin beharreko sarbide-proba espezifikoaren helburua; eta hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie proba horretarako deialdia egiteko, eta proba hori antolatu, garatu eta ebaluatzeko. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da 2023-2024 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan Arte dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoaren deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere.



**Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.**

1. Goi-mailako irakaskuntza horietara sartzeko probaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun badituzten balioestea.
2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.
3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

Hirugarrena.- Ikasleek proba egiteko bete beharreko baldintzak.

Baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleek egin ahalko dute Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoa:

1. Batxiler-titulua izatea.
2. Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
3. Goi-mailako arte-irakaskuntzen titulua, unibertsitate-titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua izatea.
4. Goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoen ordezkoko heldutasun-proba edo Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-probaren zati komuna gainditu izana..

Laugarrena.- 2023eko proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.

1. Izena emateko epea: apirilaren 17tik maiatzaren 19ko 13:00ak arte.
2. Eskaera on-line egingo da.
3. Hezkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu behar dituzte sarbide-probaren prezio publiko gisa.
4. Maiatzaren 26an "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko da proba egiteko izena emandako pertsona onartuen zerrenda, eta, hala badagokio, baztertuen zerrenda ere bai, baztertuta geratzeko arrazoiak adierazita. Akatsak zuzentzeko epea argitaratze-egunetik maiatzaren 31ra arte (egun hori barne) egongo da irekita. Behin betiko zerrenda ekainaren 2an argitaratuko da.

Bosgarrena.- Sarbide-probaren egitura.

Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitatea egiteko sarbide-proba espezifikoak bi zati izango ditu:



1. zatia:

A ariketa:

Testu dramatikoaren azterketa izango da.

Aldez aurretik jakinaraziko dira erreperorioa osatzen duten obra dramatikoaren izenburuak, eta epaimahaiak haiei buruzko hainbat galdera erantzuteko eta haien analisia egiteko eskatuko die izangaiei.

Izangaia heldutasuna eta ezagutza balioetsiko dira, eta, horretarako, kontuan hartuko da izangaia kontzeptuak ulertzen dituen, zer-nolako hizkuntza erabiltzen duen, loturak egiteko eta laburbiltzeko gaitasuna duen, eta ematen dituen erantzunak egokiak diren.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 60 min izango dituzte gehienez.

Izangaiek idatzizko proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide-orrian adieraziko dute.

B ariketa:

Sormen-idazketaren ariketa: Hautagaiek epaimahaiak proposatutako ikus-entzunezko proiektio bat bistaratuko dute, eta haren inguruan sormenezko testu bat sortuko dute.

Epaimahaiak honako hauek balioetsiko ditu: sortzeko gaitasuna, proposamenaren originaltasuna, proiektioaren eta proposamen idatziaren arteko egokitasuna eta koherentzia, kalitate artistiko-literarioa eta hautagaiek aurkeztutako testuaren sintesi-gaitasuna.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 15 min izango dituzte gehienez.

Izangaiek idatzizko proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide-orrian adieraziko dute.

2. zatia:

Hiru ariketa praktiko egingo dituzte (A, B, C), eta, horien bidez, gaitasun artistikoak balioetsiko dira, kontuan hartuta izangaia gorpuz- ahots- eta interpretazio-gaitasunak.

A ariketa:

Izangaiek, denek batera edo taldeetan banatuta, mugimendu eta gorputzeko ariketa praktiko bat egingo dute, epaimahaikide baten zuzendaritzapean edo epaimahaikideek izendatutako aditu baten zuzendaritzapean. Hau guztia balioetsiko da: gorputz-adierazkortasuna eta -plastika, mugimendua espazioan eta denboran, energia eta kontzentrazioa.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 90 min izango dute gehienez.

B ariketa:

Izangaiek bakoitzak B ariketako atal guztiak egin beharko ditu:

B.1 Izangaiek berak aukeratutako abesti melodiko bat abestuko du euskaraz, gaztelaniaz edo Europar Batasuneko edozein hizkuntza ofizialetan oinarri melodiko batez lagunduta, eta probak egin baino 5 egun lehenago, aukeratutako abestiaren oinarri melodikoa aurkeztuko du formatu digitalean, izenburua eta egilea zehaztuz.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: intonazioa, erritmoa, afinazioa eta ahoskera.



B.2. Izangaiak poema baten dramatizazioa aurkeztuko du. Poema nahiz dramatizazio-proposamena izangaiak berak eramango ditu.

Probak egin baino 5 egun lehenago, izangaiak aukeratutako poemaren testua aurkeztuko du formatu digitalean, izenburua eta egilea zehaztuz.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: dramatizazio-proposamenaren sakontasuna eta egokitasuna, intonazioa, erritmoa, ahoskera eta adierazkortasuna.

B.3. Izangaiak epaimahaikideek proba egiterakoan emango dioten testu bat ozen irakurtzea.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: intonazioa, erritmoa, adierazkortasuna eta ahoskera.

Epaimahaiak egokitzen jotzen dituen nahi beste ariketa proposatuko ditu, izangaia hobeto ebaluatzeko. Halaber, epaimahaiak ariketetako bakoitza eten edo amaitutzat jo ahalko du, egoki deritzon. Horretaz gainera, epaimahaiak egokitzen jotzen dituen galderak egin ahalko ditu, izangaia hobeto ebaluatu ahal izateko.

C ariketa:

Izangai bakoitzak epaimahaiak proposatutako bakarrizketetako bat interpretatuko du. Hau guztia balioetsiko da: antzespen-proposamenaren sakontasuna, egokitasuna eta koherentzia, jarrera eta presentzia eszenikoa, kontzentrazioa, gorputzaren, ahotsa eta testuaren arteko lotura.

Epaimahaiak euskarazko 4 testu eta gaztelaniazko 4 testu proposatuko ditu, eta bai euskarazko bai gaztelaniazko testuetatik bi emakumezkoenak izango dira eta beste bi gizonezkoenak. Aipaturiko testuak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko dira, izena emateko aldi.

Epaimahaiak egindako lanei eta/edo bere itxaropenei buruzko galderak egin ahal izango dizkio izangaiari.

B eta C ariketak egiteko, izangaiak 19 minutu izango dituzte gehienez. Izangaiak erabakiko du zer ordenatan egin ariketak. Izangaiak aurkezten edo egiten ez badu probako ariketetako bat, ezingo du hurrengoetan parte hartu, eta ez zaizkio zuzenduko aurretik egindako probak.

I. eranskinean agertzen da probaren egitura, bai eta zati bakoitzari dagokion puntuazioa ere.

Seigarrena.- Sarbide-proba kalifikatzea.

1. Sarbide-proba espezifikoa gainditzeko, ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea. Lehenengo zatian 10 puntu edo gehiago eta bigarrenean 40 edo gehiago lortu dituzten izangaien behin betiko puntuazioa baino ez da jasoko.
2. Amaierako kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta, horretarako, batetik ehunera bitarteko eskala erabiliko da, dezimal batekin. Dezimal hori gertueneko hamarrenean biribilduko da eta distantzia berean badago, handienera.

Zazpigarrena.- Sarbide-proba espezifikoaren epaimahaia.

1. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeko epaimahaia, eta epaimahaiburua eta hiru epaimahaikide izango ditu gutxienez.



2. Epaimahaiak egoki deritzen aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.
3. Honako hauek dira epaimahaiaren egitekoak:
 - a. Euskal Autonomia Erkidego osorako bakarrak izango diren probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea.
 - b. Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
 - c. Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
 - d. Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean den araudia betetzen dela zaintzea.

Zortzigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek proba egiteko denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako izangaien aukera berak izan ditzaten.
2. Pertsona horiek hezkuntza-premia bereziak dituztela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Bederatzigarrena.- Proba egitea.

1. Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoak ekainaren 12tik 16ra bitartean egingo dira. Data zehatzak, gutxienez, proba-egunak baino bost egun lehenago jakinaraziko dira “Dantzerti” Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolaren webgunean.
2. Probak “Dantzerti” Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo dira.
3. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, jarraibide gehigarrien bidez, aurreko puntuei buruzko argibide gehiago eman ahal izango ditu “Dantzerti” Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren iragarki-taulan edo webgunean.
4. Izangaiek NAN, AIZ edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute probak egin ahal izateko. Horrez gain, beraiek eraman beharko dituzte probako ariketak egiteko beharrezkoak diren tresnak.

Hamargarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.

1. Behin-behineko notak “Dantzerti” Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko dira, proba egin eta bi egun balioduneko epean.
2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun balioduneko epean egin dezake ikasleak proban ateratako notaren erreklamazioa egin ahalko du. Erreklamazioa epaimahaiburuari egin beharko dio, eta behin betiko notak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin betiko notak behin-behineko notak argitaratu eta gehienez ere astebetera argitaratuko dira.
4. Behin betiko notaren kontra, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako arduradunari, nota argitaratu eta hilabeteko epean.



Hamaikagarrena.- Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiri bat eskatu ahal izango du proba egin duen ikastetxean. Ez zaie ziurtagiririk emango proba guztiz gainditu ez duten izangaiei, ez ziurtagiri partzialik, ez eta ariketen kalifikazio-ziurtagiririk ere.

Hamabigarrena.- Dokumentazioa gordetzea.

Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.

Hamahirugarrena.- Deitutako plazen kopurua eta plazak esleitzeko modua.

1. 2023-2024 deialdian, eta martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritako ratioen arabera, administrazio akademikoak sarbide-probetarako deialdia egiten du Interpretazioaren espezialitateko 15 plaza betetzeko. Hori dela eta, deialdi honetan jada egindako matrikulazioan bete gabe geratu den plaza-kopurua iragartzen da.
2. Ikasleak onartzeko, ezinbestekoa da ikasleak sarbide-proba espezifikoa gainditu izana.
3. Proban lortutako noten arabera esleituko dira plazak, beheranzko hurrenkeran.
4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probako bigarren zatian nota handiena lortzen duen izangaia. Hala eta guztiz ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasuna izango du sarbide-proba egiteko egiaztatutako baldintza akademikoan kalifikaziorik onena egiaztatzen duenak, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera: Batxilergoko batez besteko nota, hogeita bost urtetik gorakoentzako sarbide-probako nota eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probako nota. Horiek horrela, "Gai" kalifikazioa bostaren parekoa izango da zenbakizko notetan.
5. Matrikulatzeko epea amaitzean plaza libreak geratuz gero, ikastetxe horretan probak gainditu dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna plaza lortzeko, eta plaza horiek proba espezifikoko lortutako ordenaren arabera esleituko dira.
6. Amaitzeko, plaza libreak geratuz gero, beste ikastetxe batean espezialitate bererako sarbide-proba espezifikoa gainditu duten beste eskatzaile batzuei esleitu ahalko zaizkie.
7. Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, eskainitako plazen % 3 erreserbatuko dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten ikasleentzat, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta proba espezifikoa gainditzen badute. Horretarako, desgaitasuna duten ikasleek zer desgaitasun-maila aitortuta duten adierazten duen ziurtagiria erakutsi beharko dute, eskumena duen organoak egin.
8. Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, plaza huts berrien % 3 erreserbatuko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta sarbide-proba espezifikoa gainditzen



badute. Plaza-erreserba hori ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen plaza berrien guztizkoaren arabera kalkulatu da.

9. Ezin izango da plazarik esleitu eskatzaileek sarbide-proba gainditu duten espezialitatea ez den beste batean..
10. Matrikula, "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo da uztailaren 4tik 14ra (biak barne).

Eugenio Jiménez Ibáñez

IKSTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

**ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAK
 PROBAREN EGITURA**

	ARIKETA		OHARRAK	ARIKETA EGITEKO DENBORA	PUNTUAZIOA
1. ZATIA	1	Testu baten azterketa	Epaimahaiak proposatua	60 minutu gehienez	10 puntu
	2	Sormenezko idazketa		15 minutu gehienez	10 puntu
2. ZATIA	A ARIKETA				
	A	Mugimenduko eta gorputzeko talde- praktika bat egitea	Epaimahaiak izendatutako aditu batek gidatua	90 minutu gehienez	25 puntu
	B ARIKETA				
	B1	Abesti melodiko bat interpretatzea	Izangaiak ekarria	3 minutu gehienez	10 puntu
	B2	Poema bat dramatizatzea	Izangaiak ekarria	3 minutu gehienez	10 puntu
	B3	Testu bat irakurtzea	Epaimahaiak proba egiterakoan proposatua	3 minutu gehienez	10 puntu
	C ARIKETA				
C	Bakarrizketa bat interpretatzea (10 minutu gehienez)	Izangaiak Epaimahaiak deialdian proposatutakoen artean bat aukeratuko du	10 minutu gehienez	25 puntu	

Izangaiak aukeratuko du B eta C ariketak zer ordenatan egin.